EUS | ES

ARABAKO ERRIOXAKO MAPA TURISTIKOA

MAPA TURÍSTICO DE RIOJA ALAVESA

ARDOAREN IBILBIDEA ARABAKO ERRIOXA

RUTA del VINO RIOJA ALAVESA

ARABAKO ERRIOXA
RIOJA ALAVESA

Arabako hegoaldean dago Arabako Errioxa; 300 km2-ko eskualdea da, hegoaldean Ebro ibaiak babesten du eta iparraldean Toloño Mendilerroak, eta erromatarren garaiaz geroztik landatzen dira bertan mahatsondoak.

Arabako Errioxak 12.000 biztanle dauzka, 15 udalerri, 4 Administrazio Batzorde eta 4 biztanlegune, zeinetan 300 upategi inguru biltzen diren. Lurralde osoan nabari da arduraden kultura; eta horretaz gain, bizikidetza, abegi ona eta ongietorria egitea bizitzeko modutzat daukan jendea bizi da bertan. Udalerri horien arteko distantziak laburrak direnez, eta udalerri horietara erraz irits daitekeenez, aitzakia ezin hobea da mahasti bukaezinen paisaia txundigarrien artean galtzeko; udalerri horietan, gainera, oilbondoak eta milaka urte dituzten trikuharriak daude, baita harresiz inguratutako Erdi Aroko hiribilduak, oinetxeak eta edertasun isileko elizak ere, eta, jakina, upategi asko, tradizioa eta modernitatea uztartuz. Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea ehun establezimenduk baino gehiagok osatzen dute eta esperientzia paregabeak jartzen ditu zuen eskura herialde honetako bazter guztiak ezagutzeko eta haietaz gozatzeko.

Bidaiariak esperientzia bereziak bizi ahal izango ditu mahastietan eta upategietan, eta txango horretan paisaia erakargarriaz gozatu ahal izango du, baina horrez gain, beste hainbat ekitaldi erakargarritan ere parte hartu ahal izango du, esate baterako, ardoaren jaietan eta ospakizunetan, bisitaldi kulturaletan, ardoterapian, naturan egindako jardueretan, enogastronomia-erosketetan eta abar, gaua barriken eta mahastien artean igarotzen duen bitartean diseinu ikusgarriak dituzten hotel abangoardistetan edo xarmaz betetako landetxe eta landa-hoteletan. Sukaldaritza tradizionalaz gain, miniaturan egindako sukaldaritzaz ere goza dezake; gure sustraiei eusten dien eta janari miragarriez osatutako gastronomia dastatzeko aukera izango du, gure sukaldariek beren sukaldeetan bertako produktuak erabiltzen baititzute; eta haila, Arabako Errioxan egindako egonaldiari amaiera bikaina emango dio bidaiariak. Hori bai, gure ardoekin egingo du beti topa, ardo horiei esker baitago bidaiaria lurralde honetan, Arabako Errioxan, lurralde honek bihurtu baitu ardoa eta ardoaren inguruan dagoen guztia lurraldearen izateko arrazoi.

Al sur de Álava, Rioja Alavesa, es una comarca de 300 km2 custodiada al sur por el río Ebro y al norte por la imponente Sierra de Toloño, en la que se cultivan las vides desde la época romana.

Rioja Alavesa, con una población de 12.000 habitantes, comprende 15 municipios, 4 Juntas Administrativas y 4 núcleos de población en la que se localizan alrededor de 300 bodegas. Un territorio donde la cultura del vino se palpa en todas partes; todo, junto a gentes que saben que la convivencia, la hospitalidad y la bienvenida es una forma de vida. Las cortas distancias entre estos municipios y la facilidad de acceso son la excusa perfecta para perderse entre sorprendentes paisajes de interminables viñedos, salpicados de olivos y dólmenes milenarios, villas medievales con sus recintos amurallados, mansiones solariegas e iglesias de silenciosa belleza… y por supuesto, de infinidad de bodegas, cuyo actual hilo conductor es enfrentar la tradición a la modernidad. La Ruta del Vino de Rioja Alavesa, compuesta por más de un centenar de establecimientos, pone a vuestra disposición experiencias únicas para disfrutar y descubrir todos los rincones de esta tierra.

A las singulares experiencias en viñedos y bodegas y al propio atractivo paisajístico de la escapada, el viajero puede sumar reclamos como fiestas del vino y eventos, visitas culturales, vinoterapia, actividades en la naturaleza, compras enogastronómicas, etc. mientras pernocta entre barricas y viñedos en hoteles vanguardistas con diseños espectaculares, o en casas y hoteles rurales llenos de encanto. Desde la cocina más tradicional a las exquisiteces de la cocina en miniatura, saborear una gastronomía fiel a nuestras raíces y bendecida por una despensa prodigiosa, en la que nuestros chefs siguen utilizando en los fogones productos autóctonos, culminará la estancia en Rioja Alavesa. Eso sí, brindando siempre con nuestros vinos, que inequívocamente sitúan al viajero en una tierra, Rioja Alavesa, que ha hecho del vino y de todo lo que le rodea su razón de ser.

BISITALDI GIDATUAK
VISITAS GUIADAS

Arabako Errioxan hiru turismo-bulego daude, Elciegon, Labastida/Bastidan eta Laguardian. Bisitaldi gidatuak egiten dira Arabako Errioxako udalerrietara ordutegi zabalarekin. Elciegoko San Andres eliza, Labastida/Bastidako Kristoaren ermita eta Jasokunde Andre Mariaren eliza edo Erregeen Andre Mariaren arkupea dira eskualde horretan ikusi ahal izango dugunaren hiru adibide. Laguardian, gainera, Abate dorrea bisita daiteke eta hiribildu harresituaren nahiz mahastien, aintziren edo Toloño Mendilerroaren eta Uraren Museoaren (urmael zeltiberiarra dago barruan) aireko bista ikusgarriez goza dezakezu han goitik. Beste monumentu-multzo batzuetan antzezpenekin lagundutako bisitaldiak eskaintzen dituzte, esate baterako Labrazan edo Gatzaga Buradonen.

Rioja Alavesa dispone de tres oficinas de turismo situadas en Elciego, Labastida/Bastida y Laguardia. Se realizan visitas guiadas a sus municipios con amplios horarios. La Iglesia de San Andrés en Elciego, la Ermita del Cristo y la iglesia de Nuestra Señora de la Asunción en Labastida/Bastida o el Pórtico de Santa María de Los Reyes, en Laguardia son tres ejemplos de lo que podremos descubrir. En esta última además se pueden visitar la Torre Abacial, con unas vistas aéreas espectaculares tanto de la villa amurallada como de los viñedos, las lagunas o la Sierra de Toloño y el Museo del Agua, con un estanque celtibérico en su interior. Otros conjuntos monumentales también se pueden visitar a través de visitas teatralizadas como Labraza o Salinillas de Buradón/Gatzaga Buradon.

EZAGUTU ARABAKO ERRIOXA
DESCUBRE RIOJA ALAVESA

TRIKUHARRIEN IBILBIDEA
RUTA DE LOS DÓLMENES

Arabako Errioxaren ezaugarrietako bat historiaurreko artarnak dira. Toloño Mendilerroaren oinetan daudenzortzi trikuharrik osatzen dute autoz egiteko oso egokia den ibilbide bat. Euskadi osoko trikuharri handi eta ikusgarrienetakoak dira. Oso zainduta daudenez eta erraz iristeko modukoak direnez, daukaten magia guztia ikusaraziko diote bisitariari. Kripango Los Llanos, Bilarreko Sorginaren Txabola edo El Encinal, Laguardiako Alto de La Huesera, San Martin, El Sotillo eta Layaza, eta Eskuernagan aurkitutako Montecillo trikuharriek osatzen dute ondare aberats hau.

Algo que caracteriza a Rioja Alavesa son sus vestigios prehistóricos. Un total de ocho dólmenes a los pies de la flamante Sierra de Toloño hacen una ruta, ideal para realizar en coche. Son de los más grandes y espectaculares de todo Euskadi. Cuidados y accesibles, harán descubrir al visitante la magia que esconden. Los Llanos en Kripan, La Chabola de la Hechicera, El Encinal, en Elvillar/Bilar, El Alto de La Huesera, San Martín, El Sotillo y Layaza en Laguardia y Montecillo, localizado en Villabuena de Álava/Eskuernaga conforman este rico patrimonio.

TRIKUHARRIAK / *LOS DÓLMENES*

1. Los Llanos (Laguardia)
2. El Encinal (Elvillar/Bilar)
3. Sorginaren Txabola / La Chabola de la Hechicera (Elvillar/Bilar)
4. Alto de la Huesera (Laguardia)
5. San Martín (Laguardia)
6. El Sotillo (Laguardia)
7. Layaza (Laguardia)
8. Montecillo (Villabuena de Álava/Eskuernaga)



MUSEOAK ETA INTERPRETAZIO-ZENTROAK
MUSEOS Y CENTROS DE INTERPRETACIÓN

Arabako Errioxan hainbat gairen inguruko interpretazio-zentroak eta museoak daude, familia oscarekin batera joan eta bisitatzeko modukoak. Esate baterako, Navaridaseko Castejon Gainako interpretazio-zentroa eta Laguardiako La Hoya museoa –historiaurreari buruzkoak– eta Villa Lucia Ardoaren interpretazio-zentroa eta Laguardiako Adiskide Museoa –ibilbide bat egiten dute eskualde horretako historian zehar "2.100 urteko Ura" Museoraino–; bertan La Barbacana urmael zeltiberiarra dago, Europa osoko handiena.

Rioja Alavesa posee varios centros de interpretación y museos de diferentes temáticas, visitables y accesibles para toda la familia. Desde la prehistoria, como el centro de interpretación de El Alto de Castejón en Navaridas y el museo de La Hoya en Laguardia, pasando por el Centro de interpretación del Vino Villa Lucía y el Museo de Amigos de Laguardia, que hace un recorrido por la historia de la comarca hasta el Museo 2100 años de Agua, que alberga el estanque celtibérico La Barbacana, el más grande de todo Europa.

INTERPRETAZIO GUNEAK / *CENTROS DE INTERPRETACIÓN*

- CASTEJON GAINAKO INTERPRETAZIO-ZENTROA
  CENTRO DE INTERPRETACIÓN DEL ALTO DE CASTEJÓN
  (Navaridas)
  Kultura Ondasun Kalifikatu deklaratutako gune arkeologikoa,
  Monumentu Multzo kategoriarekin / *Zona arqueológica declarada Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental.*
  altodecastejongaina.com
- VILLA LUCIA ARDOAREN ERAKUSTOKIA
  CENTRO TEMÁTICO DEL VINO VILLA LUCÍA
  (Laguardia)
  Ardoaren Interpretazio Zentroa / *Centro de Interpretación del Vino.*
  945 600 032 · villa-lucia.com

MUSEOAK / *MUSEOS*

- MUSEO DEL POBLADO DE LA HOYA (Laguardia)
  945 621 122 / 945 181 918 · laguardia-alava.com
- MUSEO AMIGOS DE LAGUARDIA (Laguardia)
  945 600 845
- 2100 AÑOS DE AGUA - LA BARBACANA (Laguardia)
  945 600 845 · laguardia-alava.com
- CASA MUSEO LA ABADÍA DE MORATA (Laguardia)
  677 469 691 · abadiademorata.com

BEGIRATOKIAK
MIRADORES

Arabako Errioxaren ezaugarri nagusietako bat bere paisaia da, mahasti-itsaso bat Erdi Aroko hiribilduz eta arte txikiko ondarez josia. Arabako Errioxako Balkoitik, 1.000 metro inguruko altueratik, eskualdearen zati bat ikus daiteke. Kolorez aldatzen den tapaki bat gure oinetan. Beste begiratoki batzuk ere badituguEbroren ondoan, Elciegon: San Bizente eta San Roke. Laguardian, Portal de Páganoseko Begiratokitik San Lorenzoren tontorra (2.271m), Demanda mendilerroa, Toloño Mendilerroa eta hiribilduk txikiz jositako paisaia ikus ditzakegu. Labastida/Bastidan, El Cristo begiratokia nabarmendu behar dugu, hortik ilunabar bikainak eta hiribilduko monumentu-multzoa ikus daitezke (1999).

Rioja Alavesa se caracteriza por su paisaje, un mar de viñedos salpicado de villas medievales y patrimonio de arte menor. Desde El Balcón de Rioja Alavesa se puede divisar, desde una altura de aproximadamente 1000 metros, parte de la comarca. Una manta cambiante de color se pone a nuestros pies. Otros miradores se sitúan junto al Ebro, en Elciego, San Vicente y San Roque. En Laguardia, desde el Mirador del Portal de Páganos, podremos divisar el pico de San Lorenzo (2.271m), Sierra de la Demanda, Sierra de Toloño y un paisaje salpicado de pequeñas villas. En Labastida/Bastida, Toloño el mirador de El Cristo desde donde se pueden disfrutar de magníficos atardeceres así como del conjunto monumental de la villa (1999).

BEGIRATOKIAK / *LOS MIRADORES*

- El Balcón de Rioja Alavesa (Puerto de Herrera)
- Mirador de San Vicente (Elciego)
- Mirador de San Roque (Elciego)
- Mirador de El Cristo (Labastida/Bastida)
- Mirador del Portal de Páganos (Laguardia)

LANDA-DOLAREAK
LAGARES RUPESTRES

Dolarea deitzen zaio zukua lortzearren mahatsa, oliba edo sagarra zapaldu, prentsatu edo txikitzen den lekuari. Arabako Errioxaren mendebaldean, zehazki Labastida/Bastidan, bisita daitezkeen eta mahatsa zapaltzeko egin ziren 12 landa-dolare daude. Egitura horiek Erdi Arokoak dira, eta IX. mendetik XII. mendera bitarteko aldian dokumentatutako giza kokapenekin lotuta daude.

Labastida/Bastidako inguruetan, harkaitz garai batzuen gainean eta ur-ibilguetatik hurbil, IX. eta X. mendeko mila Nekropoli inguru daude. Harkaitzean zulatutako hilobi antropomorfoak dira. Kontserbazio-egoera kontuan hartuz, Remelluriko Andre Mariaren Etxaldeko Santa Eulalia Nekropolikoak nabarmentzen dira. Santo Kristo emitaren barruko hilobi antropomorfoak ere bisita daitezke.

Recibe el nombre de lagar, el sitio donde se pisa la uva, se prensa la aceituna o se machaca la manzana para obtener su jugo. En la parte oeste de Rioja Alavesa, concretamente en Labastida/Bastida, existen 12 lagares rupestres visitables dedicados al pisado de la uva. Estas estructuras datan de la época medieval en relación con unas formas de asentamientos ya documentadas en entre el s. IX y s. XII.

En las cercanías de Labastida/Bastida, sobre peñascos elevados y cercanas a los cauces de agua, se localizan cerca de un millar de Necrópolis de los siglos IX y X. Se trata de tumbas antropomorfas excavadas en la roca, destacando por su conservación las de la Necrópolis de Sta. Eulalia en La Granja de Nuestra Señora de Remélluri. También pueden visitarse las tumbas antropomorfas en el interior de la ermita del Santo Cristo.

LANDA-DOLAREAK / *LAGARES RUPESTRES*

1. La Torera
2. Iscorta
3. Mugazabal
4. Los Arenales
5. Montebuena Norte*
6. Montebuena Sur
7. San Cristóbal
8. Marrate
9. Atxalde
10. Fonsagrada
11. Las Pileras
12. Santurnia

*Hori da hobekien kontserbatuta dagoena eta irisgarriena dena.
Es el mejor conservado y el más accesible.

NAHIERARAKO TURISMOA
TURISMO A LA CARTA

Turismo-bulegoek eskaintzen dituzten bisitaldi gidatuez gain, Arabako Errioxan zerbitzu espezializatuak ere baditugu. Labastida/Bastidan, enoturismoan espezializatuta dauden harrerako bidaia-agentziek (Thabuca Wine Tours eta Rioja Alavesa Turismo) neurrirako bidaiak antolatzen lagundu dezakete. Laguardian, Visit Rioja Alavesa agentzia dago.

Hainbat gida espezializaturi esker, abenturaz, kirolaz, naturaz, ardoaz, olioaz eta gastronomiaz goza daiteke. Horrez gain, honako ekintza hauek guztiak egin daitezke; 4X4 ibilgailuan ibili eskualdean barrena, eskalada egin, senderismoa, kayaketan eta piraguetan ibili Ebro ibaian barrena, SUP, eskualdearen berri emango digun gidari laguntzaile batekin inguruak ezagutu, olio-dolareak bisitatu, edari-dastatze komentatuak, mahasti artean egindako parrilada eder batez gozatu, eta abar.

Además de las visitas guiadas ofrecidas por las oficinas de turismo, en Rioja Alavesa disponemos también de servicios especializados. En Labastida/Bastida pueden ayudar a organizar un viaje a medida las agencias receptivas especializadas en enoturismo Thabuca Wine Tours y Rioja Alavesa Turismo. En Laguardia contamos con la agencia Visit Rioja Alavesa.

Gracias a varios guías especializados se puede disfrutar de aventura, deporte, naturaleza, vino, aceite y gastronomía. Recorrer la comarca en 4X4, hacer escalada, senderismo, kayak y piraguas por el Ebro, recorrer la comarca con un conductor guía acompañante, visitar trujales de aceite, catas comentadas, disfrutar de una parrillada entre viñedos,...

ATSEDENLEKUAK
ÁREAS DE ESPARCIMIENTO

Arabako Errioxako hainbat herritan foru-sareko nahiz udal-sareko atsedenlekuak aurki ditzakegu. Atsedenleku horietan iturburu naturalak, atsedenguneak, erretegiak, mahaiak, berdeguneak, haur-parkeak, informazio-panelak, aparkalekuak eta abar topatuko ditugu lagunekin eta familiarekin une ahaztezinak igarotzeko.

Atsedenleku horietatik abiatuta hainbat ibilbide egin ahal izango dituzu oinez edo bizikletaz gure eskualdeak eskaintzen dizkizun paisaiez eta mahastiez gozatzeko. Udan jende guztiarentzat irekita egoten dira herri guztietan dauden udal-igerilekuak.

En diferentes localidades de Rioja Alavesa podemos encontrar áreas de esparcimiento tanto de la red foral como municipales. Áreas en las que podemos disfrutar de fuentes de manantiales naturales, zona de descanso, asadores, mesas, zonas verdes, parques infantiles, paneles informativos, parkings, etc. para compartir momentos inolvidables con amigos y en familia. Desde estas áreas podrás recorrer a pie o en bicicleta, diferentes recorridos para disfrutar de los paisajes y viñedos que te regala nuestra comarca. En la época veraniega están abiertas para el público en general las piscinas municipales, localizadas en todos los pueblos.

ATSEDENLEKUAK / *ÁREAS DE ESPARCIMIENTO*

- Berberana (Laguardia)
- Ermita de San Roque (Elciego)
- San Justo (Oyón-Oion)
- Ermita del Cristo (Samaniego)
- San Ginés (Labastida/Bastida)
- La Póveda (Lapuebla de Labarca)
- Parque Salto-Santa Eufemia (Moreda de Álava/Moreda Araba)
- Parque de Bercijana (Yécora/Iekora)

TURISMO BULEGOAK
OFICINAS DE TURISMO

LAGUARDIA
Casa Garcetas. Mayor, 52 · 945 600 845
turismo@laguardia-alava.com · laguardia-alava.com

LABASTIDA/BASTIDA
Plaza de la Paz 3, bajo · 945 331 015
turismo@labastida.eus · labastida.eus

ELCIEGO
Edificio "Casa de los Maestros". Norte, 26 · 945 606 632
info@elciego.es · elciego.es

MENDI-IBILBIDEAK
SENDERISMO

Eskualde osoan prestatutako ibilbide txikiagoak ere badaude, normalean zirkularrak eta luzera desberdinetakoak dira, jende guztiak ibilbide horietaz gozatzeko aukera izan dezan, bai oinez bai bizikletaz.

Disponemos igualmente de recorridos más pequeños, generalmente circulares, señalizados a lo largo de la comarca y con diferentes longitudes para que todos los públicos puedan disfrutar de ellos, a pie o en bicicleta.

SAMANIEGO Samaniego	8,93 km	A
LEZA-SAMANIEGO-LEZA Leza-Samaniego-Leza	20,1 km	C
LEZA Leza	5.5 km	D
PATRIMONIO DE NAVARIDAS NABARIDASKO ONDAREA Navaridas	11 km	E
YACIMIENTO ALTO DE CASTEJÓN CASTEJON GAINA AZTARNATEGIA Navaridas	4,04 km	G
NAVARIDAS-ELCIEGO-LAGUARDIA-PÁGANOS-LEZA Navaridas-Elciego-Páganos-Leza-Navaridas	22 km	H
RUTA DEL DOLMEN TRIKUHARRIAREN IBILBIDEA Villabuena de Álava/Eskuernaga	2,28 km	I
SENDA VERDE DE BERCIJANA BERCIJANAKO IBILBIDE BERDEA Yécora/Iekora	4,13 km	
RUTA VERDE CULTURAL IBILBIDE BERDE KULTURALA Elvillar/Bilar-Kripan-Lanciego/Lantziego Viñaspre/Binasperi	29,2 km	
PINAR DE DUEÑAS DUEÑASKO PINUDIA Labraza	7 km	
COMPLEJO LAGUNAR DE LAGUARDIA LAGUARDIAKO AINTZIRAGUNEA Laguardia	14,2 km	
ENTRE VIÑAS MAHASTI ARTEAN Elciego	8,82 km	
RUTA DEL EBRO EBROKO IBILBIDEA Labastida/Bastida	8,83 km	
ERMITA DE SAN GINÉS SAN GINES BASELIZA Labastida/Bastida	4,2 km	

ARABAKO ERRIOXA EZAGUTZEKO GIDARIK HOBERENAK
DÉJATE GUIAR

Arabako Errioxara bidaia bat antolatu nahi baduzu, lagundu diezazukegu. Zure eskura jartzen ditugu gure esperientzia eta lan ona zure "nahierarako" bidaia prestatzeko, ardoaren lurralde honetako bazter eta xarma guztiak zuzenean ezagutzen lagunduko dizuten ibilbide pertsonalizatuekin eta esperientzia paregabeekin.

Si quieres organizar un viaje a Rioja Alavesa, podemos ayudarte. Ponemos a tu disposición nuestra experiencia y buen hacer para preparar un viaje "a la carta", con rutas personalizadas y experiencias únicas que te ayudarán a conocer, de primera mano, todos los rincones y encantos de esta tierra del vino.

- LOS CAZAVENTURAS · Labastida/Bastida
  676 925 746
- RIOJA ALAVESA TURISMO · Labastida/Bastida
  676 925 746
- THABUCA WINE TOURS · Labastida/Bastida
  945 331 060
- PEPITA UVA · Laguardia
  945 600 218
- VISIT RIOJA ALAVESA · Laguardia
  945 600 710
- ERROIZ · Lanciego/Lantziego
  688 810 066
- OLIOLIVE · Moreda de Álava/Moreda Araba
  636 379 877
- SASAZU · Samaniego
  688 820 759

GARRAIOAK/TAXIAK
TRANSPORTES/TAXIS

- ENOTAXI · Samaniego
  688 820 759
- BASTIDA TAXI · Labastida/Bastida
  629 261 638
- ARABA BUS · Rioja Alavesa
  945 181 818

INFORMAZIO GEHIAGORAKO
PARA AMPLIAR INFORMACIÓN

Turismo-zerbitzuak, informazio-bulegoak, lotura interesgarriak, deskargak, berriak...
Servicios turísticos, oficinas de información, enlaces de interés, descargas, novedades...

rutadelvinoderiojaalavesa.com
euskaditurismo.eus

rutadelvinoderiojaalavesa.com

Arabako Errioxako Kuadrilla
Cuadrilla de Rioja Alavesa

araba álava
foru aldundia diputación foral

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

BIOSPHERE certified destination

Ruta del Vino Rioja Alavesa miembro del consorcio Red DTI

etikea Turismo Euskadi 0000045

queer destinations

visitriojaalavesa.com

Travel agency identification code / Code d'identification de l'agence de voyages: CIE2539
Registration code / Code d'enregistrement: AVI00130

EUSKADIRA DATOZEN TURISTA ETA BISITARIENTZAKO GIZABIDE DEKALOGOA

DECÁLOGO DE CIVISMO PARA TURISTAS Y VISITANTES DE EUSKADI

Ondare naturala eta kulturala herri guztiena da, goza ezazu, gorde itzazu haien balore unibertsalak eta saihestu haien biziraupena arriskuan jar dezaketen eragin negatibоak.

El Patrimonio Natural y Cultural pertenece a todos los pueblos, disfrútalo, preserva sus valores universales y evita impactos negativos que comprometan su supervivencia.

Ez sartu espezie inbaditzailerik eta ez hartu babestutako flora eta fauna, ezta espezie horietatik eratorritako produkturik ere. Ez atera materialik interesekoak diren eraketa geologikoetatik.

No introduzcas especies invasoras ni adquieras flora y fauna protegida, ni productos derivados de dichas especies. Tampoco extraigas material de las formaciones geológicas de interés.

Ekidin zarata egitea balio natural eta kultural handiko guneetan eta ez eragin soinu-distortsiorik.

Evita el ruido en las zonas de mayor valor natural y cultural y no introduzcas distorsión acústica.

Ez egin surik, horretarako egokitutako guneetan izan ezik; ez bota zigarrokinik zorura, itzaltzeko zailak izan daitezkeen suteak eragin baitaitzakete, bereziki basarteetan eta eremu menditsuetan.

No hagas fuego, salvo en las zonas habilitadas para ello, ni tires colillas al suelo ya que podrían provocar incendios difíciles de sofocar especialmente en zonas boscosas y áreas montañosas.

Ez kontsumitu beharrezkoa den baino ur eta energia gehiagorik, eta kudeatu hondakinak modu arduratsuan, hau da, ez utzi zaborrik edozein lekutan eta erabil itzazu bereizketa selektiborako edukiontziak.

No consumas más agua y energía de la necesaria y deshazte de los residuos de forma responsable sin dejar basura a tu paso, utilizando los contenedores de separación selectiva.

Erabili ahalik eta gutxien autoa edo motorra. Joan oinez, bizikletaz edo garraio publikoan ahal duzun gutxietan.

Minimiza tus desplazamientos en coche o en moto. Organiza traslados a pie, en bici o con transporte público siempre que puedas.

Aukeratu establezimendu turistiko arduratsuak, hau da, birziklapenaren, energia eta ura aurreztearen, eta tokiko komunitatea zein ondare naturala eta kulturala errespetatzearen alde egiten dutenak.

Elige establecimientos turísticos responsables que tengan en cuenta el reciclaje, el ahorro de energía y agua, y el respeto a la comunidad local y al patrimonio natural y cultural.

Ahal baduzu, kontsumitu tokiko produktuak; bertako gastronomiaz, kulturaz eta artisautzaz gozatzeaz gain, ingurua babesten eta garapen jasangarria sustatzen laguntzen duzu.

Si tienes ocasión consume productos locales, porque además de disfrutar de la gastronomía, cultura y artesanía locales, estás contribuyendo a la conservación y desarrollo sostenible del entorno.

Errespetuz trata itzazu besteak, haien duintasuna gordez, berdinetik berdinera.

Trata a las personas con respeto, preservando su dignidad, tratándolas de igual a igual.

Hedatu bisitatzen duzun inguruaren ezagutza eta interesa; izan ere, turismo arduratsuaren alde egiten baduzu, denboran zehar iraungo du.

Difunde la belleza e interés del entorno que visites, ayudando a que un turismo responsable en la zona, contribuya a su mantenimiento a lo largo del tiempo.

ARABAKO ERRIOXA EZAGUTZEKO GAKOAK...

DESCUBRE RIOJA ALAVESA A TRAVÉS DE...

1 HISTORIA SU HISTORIA

Altxor arkeologikoak: trikuharriak, historiaurreko herrixkak, landa-dolareak; ardoaren inguruan eskualde honek bizi izandakoaren lekuko.

Ibilbide bat historian, ondarean eta kulturan barrena, XII. mendeko lurpeko upategiek zeharkatutako sarean, arkitekto abangoardistenek diseinatutako XXI. mendeko "katedral" ikaragarrien azpian. Ezagutu gure historiaren sekretuak eta isilpeko kontuak. *Zure* kasa edo bisitaldi gidatu bidez egindako ibilaldiak Arabako Errioxaren idiosinkrasia landu duten garai erabakigarrienetako bakoitzera eramango zaitu.

Restos arqueológicos: dólmenes, poblados prehistóricos, lagares rupestres; dan fe de los tiempos vividos en la comarca entorno al vino.

Un recorrido por la historia, el patrimonio y la cultura surcado por bodegas subterráneas del siglo XII, que conviven bajo las imponentes "catedrales" del siglo XXI, diseñadas por los arquitectos más vanguardistas. Descubre los secretos y entresijos de nuestra historia. Un recorrido a tu aire o con visita guiada te remontará a cada una de las épocas decisivas en el labrado de la idiosincrasia de Rioja Alavesa.

2 ERDI AROKO HIRIBILDUAK SUS VILLAS MEDIEVALES

Erdi Aroko hiribildu multzo bat nagusitzen da Arabako Errioxako ardoaren paisaian. Eskualde osoan barrena hedatutako 19 hiribildu. Haietako batzuek duela 800 urte baino gehiago jaso zuten beren hiri-forua eta eskualdeko ondare-aberastasunaren lekuko ditugu. Beren nortasuna gorderik, garbi-garbi eta kontu handiz berreraikita topatuko ditugu, bisitariari Erdi Aroaren funtsa bere osotasunean eskaintzeko. Elciegon, Labastida/Bastidan eta Laguardian, turismo-bulegoek bisitaldi gidatuak eskaintzen dituzte. Beste herri batzuetan, hala nola Labrazan eta Gatzaga Buradonen, arestian adierazitako bisitaldiez gain bisitaldi teatralizatuak eskaintzen dira bertako historiaren berri modu atseginean emateko. Nabarmendu behar da Labastida/Bastidaren, Labrazaren, Laguardiaren eta Gatzaga Buradonen herrigune historikoa monumentu-multzo gisa babestuta dagoela.

Un conjunto de antiguas villas medievales preside el paisaje del vino en Rioja Alavesa. 19 villas repartidas por toda la comarca. Algunas de ellas cuyo fuero de población recibieron hace más de 800 años, dan fe de la riqueza patrimonial de la misma. Intactas, involutas, reconstruidas con exquisita delicadeza para ofrecer al visitante en plenitud la esencia de la Edad Media. En Elciego, Labastida/Bastida y Laguardia, las oficinas de turismo ofrecen visitas guiadas. En otras como Labraza y Salinillas de Buradón/Gatzaga Buradon, además de las anteriormente citadas, se ofrecen también visitas teatralizadas para dar a conocer su historia de manera amena. Destacar que Labastida/Bastida, Labraza, Laguardia y Salinillas de Buradón/Gatzaga Buradon tienen su casco histórico protegido como conjunto monumental.

3 UPATEGIAK SUS BODEGAS

Arabako Errioxan 13.500 hektarea mahasti eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Erregulatzailearen gainbegiradapean eta kontrolpean gutxi gorabehera 100 milioi botila ardo produzitzen dituzten ia 300 upategi daude. Upategi mota asko daude, eta guztiek osatzen dute Arabako Errioxaren bihotza.

Upategi batzuk antzinako sakoneretan daude, eta upategi horietan ardogile artisauen ohiturari eusten diote oraindik ere; beste batzuetan hirugarren edo laugarren belaunaldiko mahastizainak izanik, gaurkotu egin dituzte beren instalazioak, familiako mahastien benetakotasuna babestuz. Badira beste batzuk, ehunka urtekoak, handientsuak eta klasikoak, mundu osoko ardozaleen artean begirunea sorrarazten duten izen ospetsukoak. Eta, jakina, munduko arkitekto hoberenetako batzuek diseinatutako abangoardiako arkitekturako upategiak ere badaude, beren forma ziragarriekin.

Rioja Alavesa alberga 13.500 hectáreas de viñedos y casi 300 bodegas que producen aproximadamente 100 millones de botellas de vino bajo la supervisión y control del Consejo Regulador de la Denominación de Origen Calificada Rioja.

Las bodegas, en sus múltiples tipologías, constituyen el corazón de Rioja Alavesa. Las hay ubicadas en caladas ancestrales donde aún se mantiene la tradición elaboradora artesana, o de viticultores de tercera o cuarta generación que han adaptado convenientemente sus instalaciones resguardando la autenticidad de los viñedos familiares. Hay otras centenarias, majestuosas y clásicas, cuyos nombres destilan reverencia entre los grandes aficionados de cualquier confín. Y, por supuesto, están las bodegas de arquitectura de vanguardia con sus impactantes formas, que han sido diseñadas por algunos de los mejores arquitectos del mundo.

4 GASTRONOMIA ETA ARDOA SU GASTRONOMÍA Y VINO

Esaten dutenez, sibaritek gastronomia hoberenaren eta kalitate bikaineko ardoaren arteko uztartze perfektua bilatzen dute. Bilaketa hori Arabako Errioxako ardoekin egiten bada, emaitza bermatuta dago. Ardoa bizitzear gain, askotariko gastronomia bikainaz gozatuko duzu. Leku pribilegiatu honek platerik onenetako batzuk eman dizkio herri-errezeten sortari, hala nola patatak txorizoarekin, salheskiak ximendutan erreak, masailak ardo beltzetan edo potxak. Gure sukaldariek jakin dute tradizioa eta modernitatea elkartzen eta miniaturan egindako benetako gozotasunez gain Arabako Errioxako hautatutako ardo hoberenekin uztartutako menuak eskaintzen dizkizute.

Dicen que es de sibaritas buscar un maridaje perfecto entre la mejor gastronomía y un vino con categoría de excelente… si es con los vinos de Rioja Alavesa, el resultado está garantizado. Además de vivir el vino, disfrutarás de una exquisita y variada gastronomía. Esta privilegiada zona ha legado al recetario popular algunos de sus mejores platos como las patatas con chorizo, las chuletillas al sarmiento, las carrilleras al vino tinto o las pochas. Nuestros chefs han sabido combinar tradición y modernidad y te ofrecen desde auténticas exquisiteces en miniatura hasta menús maridados con una selección de los mejores vinos de Rioja Alavesa.

5 NATURA SU NATURALEZA

Iparralderantz begiratuta, Toloño Mendilerroa ikusgarria dago, Arabako Errioxaren ekialdetik mendebaldera hedatzen den mendikatea. Nabarmen zutiturik, erliebe malkartsua eta harritsua eskaintzen digu hegoaldeko isurialdean, eta pagadi zabalak iparraldekoan. Aparteko tokia mendi-ibiliak egiteko: ikazkinen ibilbidea, ardoaren eta arrainaren ibilbidea, Toloño Mendilerroaren ibilaldia, eta abar. Morfologikoki nabarmentzekoa da glazi eta terrazen hainbat maila garatu direla, Ebro ibaiari lotutakoak. Bestalde, aipatzekoa da, halaber, inguru honetan Ebro ibaiak daraman ibilbideak meandro handi samarrak sorrarazi dituela. Bi baliabide horiek eta Laguardiako Aintzirak Natura 2.000 Sarekoak dira, eta bertako floraren eta faunaren aberastasun ederra eskaintzen digute.

Mirando hacia el norte se encuentra la imponente Sierra de Toloño, un sistema montañoso que se extiende de este a oeste de Rioja Alavesa. Destaca por su relieve escarpado y rocoso en su vertiente sur y por sus extensos hayedos en la vertiente norte. Es una zona idónea para practicar senderismo: ruta de los carboneros, ruta del vino y el pescado, travesía Sierra de Toloño, etc. Morfológicamente hay que destacar el desarrollo de varios niveles de glacis y terrazas asociadas al río Ebro, que en este sector presenta un curso formando meandros bastante pronunciados. Ambos recursos, junto con las Lagunas de Laguardia, pertenecen a la Red Natura 2.000, sobresaliendo su riqueza en flora y fauna autóctona.

6 PAISAIAK SUS PAISAJES

Arabako Errioxako mahastiak eta ardoaren kultura paisajea babestuta dagoela nabarmendu behar da, 2014. urtetik geroztik, Ondare Kultural gisa, Multzo Munumental arloan. Oso usain berezia nabari da eta begietarako ere opari ederra da Arabako Errioxako lurretan barneratzea. Mahatsondo-ilarek, ardura handiz egindako eraikin modernoek eta dozenaka urte dituzten antzinako bestelako etxetzarrek ibilbide hau presarik gabe egitea eskatzen digute.

Mahatsondoen paisaia aldatu egiten da urtean zehar, eta esan daiteke are gehiago nabarmentzen dela udazkenean, kolore-aukera harrigarria ikus daitekeelako, berdeetatik hasita okreetarainoko kolore-sortarekin, tonu gorrixketatik igarota… Ikuspegi natural horri paisaian zehar barreiatuta dauden Erdi Aroko hiribildu ugariak gehitu behar dizkiogu. Eliza dotoreak bertako biztanleen zaindari eta altxor arkeologikoak antzinako garaien lekuko, Arabako Errioxako ibilbide osoan txertatuirik.

Cabe destacar que el paisaje cultural del vino y el viñedo de Rioja Alavesa está protegido, desde el año 2014, como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental.

Huele de forma especial y es un regalo para los ojos adentrarse en tierras de Rioja Alavesa. Las hileras de vides, algunas modernas construcciones esmeradas y otras antiguas casonas con décadas de vida, hacen de esta ruta un recorrido para realizar sin prisa.

Es el de las vides un paisaje cambiante a lo largo del año, resaltando aún más si cabe en época otoñal, con un impresionante abanico cromático con gamas desde verdes a ocres, pasando por diferentes tonos rojizos… A este paisaje natural, hay que añadir las numerosas villas medievales que salpican el paisaje. Iglesias majestuosas se levantan para cuidar a sus moradores, restos arqueológicos sobreviven al paso del tiempo y se integran a lo largo de toda la ruta por Rioja Alavesa.

IKURRAK *SIMBOLOGÍA*

Informazioa	*Información*
Hiribildu Harresiduna	*Villa Amurallada*
Trikuharriak	*Dólmenes*
Museoak eta Interpretazio-Zentroak	*Museos y Centros de Interpretación*
Begiratokiak	*Miradores*
Landa-dolareak	*Lagares Rupestres*
Arkeologia	*Arqueología*
Atsedenlekuak	*Áreas de esparcimiento*
Autokarabanentzako aparkalekua	*Parking Autocaravanas*
Donejakue bidea	*Camino de Santiago*
Inaziotar bidea	*Camino Ignaciano*
GR 38 Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea	*GR 38 Ruta del Vino y del Pescado*
GR 99 Ebroko Bide Naturala	*GR 99 Camino Natural del Ebro*
Ibilbideak	*Paseos*
Mendi-ibilbideak	*Senderismo*
Birding Euskadi	*Birding Euskadi*

geo euskadi — *Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi*

NORBAIT GOGOAN? ¿PIENSAS EN ALGUIEN ESPECIAL?

#RegalaRiojaAlavesa

visitriojaalavesa.com

SARTU visitriojaalavesa.com ENTRA

AUKERATU esperientzia ELIGE una experiencia

OPARIA Arabako Errioxa REGALA Rioja Alavesa

GOZATU urtebetez DISFRUTA hasta un año